

# HUNGRIA'KO ISABEL DONEAREN

§ \* § BIZITZA § \* §




IRUGARENGOEN ZAINDARIA

AITA AZKUE

V  
10



A. T. V. 6610



M-16210  
R-8587



R. P. ANTONIO B. Y GIL. O. FR. M.

---

HUNGRIA'KO ISABEL DONEA'REN

BIZITZA

AITA JOSE MARIA AZKUE

PRANTZIZKO'TARAK

EUZKERATUTA



ELUSTONDO.-ZARAUZ

1931

NIHIL OBSTAT

FR. COSMAS LAMARAIN

Censor Ordinis.

IMPRIMI POTEST

ZARAUZ, DIE 14 FEBRUARII 1931.

FR. ANTONIUS RECONDO

M. P.

NIHIL OBSTAT

JOSE MIGUEL DE BARANDIARÁN

Censor

IMPRIMATUR

VICTORIÆ, 11 MAII 1931.

PRO. VICARIUS GENERALIS

JACOBUS VERÁSTEGUI.

## ITZ-AURÉA

Asis'ko Prantzisko doneak iru Ordena irasi zituala iñork ezin ukatu dezake. Eliz Ama doneak berak esaten digu itz neurtu oetan: (1)

*Iru Ordena onek sortu ditu,  
Praile Txikarena lenengoa deitu,  
Andre Beartsuena, au da bigarena,  
Irugarrenak gizon ta emakomeak,  
Neke zale badira, pozik artzen ditu.*

Jaungoikoak bere «Ots-egiletzat» autu zuan munduan, eta Prantzisko etzan «Ots-egilea» bakarik izan, baita bere onomen ederez eta irakaspen argiz ere, ezin zenbatu ala anima erakari zituan Jaungoikoaren bide zuzenera. Bera il baño len, urte batzuek lenago, 1223'garren *Pentekostes* Batzanean lau mila praile ta geiago aurkeztu ziran Aingeruetako Andre Mari inguruan: eta ori komentuak praile gabe utziko etzituztelarik. Bigarren Ordenak ere Italia'z kanpora bere komentuak bazituan. Baña eruz mundu guztian zabaldu zana Irugarren Ordena izan zan. Ozie guztiak Prantziskoren atzetik joan nai zutela zirudin, eta beren bizi-araua beragandik artu.

A. Lacordaire jakintsuak dionez, Ordena au zabaldu zanean, etzuan iñork uste santu izateko mundua laja bearzanik. Bizitegi bakoitza gelatxo bat zan, etxe bakoitza Tebaida beria izan ziteken.

Eregeak, jakintsuak, eliz-gizonak, gudariak,

---

(1) Prantzisko donearen jai-eguneko eliz-arrendietan (B. R. S.)

salerosleak, langile utsak, itz batez esateko, mota eta mala guztietakoak sartzen ziran Ordena goragañi onetan, jantzizat soñeko afe bat artuta, gerikotzat soka gogor lodi bat zutela.

Prantziskok eman zien Araudia edo Eregla, geroago 1289'gañen urtean IV'gañen Nikolas Aita Santuak onetsia, 1883'gañen urte arte gorde izan dute Irugañengoak. Urte ontan XIII'gañen Leon Aita Santuak eraldatu zien zerbait.

Irugañen Anaidi edo senedetza sartu ziran ospatsuenetatik bi izendatuko ditugu: Luis donea, Frantzia'ko egegea ta Isabel donea, Ungria'ko egegearen alaba. Bat bezela bestea ere, Irugañen Ordenako Zaindaria.

Isabel doneaz itz-egiten degu idaztitxo onetan, onoimen eta bizitza arigañietzaz. Il zanean 24 urte besterik etzitian, eta santutasunezko mendi gañetara igo zan. Au dala-ta maite izan zuan gure Aita Prantzisko doneak: ainbat agerkari eman izan zizkaten elkañi, idaztitxo ontan ikusiko dan bezela. Azkenean bere bederatziurtena dañai.

*Euskeratzalea.*

Zarautz, 1930'ngo Uztailaren 26'an.

---



# I

*Isabel' en jaiotza ta bere sendia (familia).*

*Turingia' ko jauregi-nagusian.*

*Bere ontasuna.*

---

Isabel Hungria'ko e'regien alaba, Ebanjelioak sortu izan duan emakumerik bikañenetako bat izan zan. Il zanean ogeita lau urte besterik etzitian, eta urte labur oetan bizibide guztien eredutzat aurkezten zaigu, neskatxa, ezkondua, ama ta alargun ona-ona izaten zala.

Jargoi ditzikor batean jaioa izanik, gabetasunik go'rienak ikusi bear izan zituan, bere gora-bera ta istilu la'rienetan Jaungoikoa beti maite izaten zuala; eta bere biotz sutsuaz, apaldasun zakonaz, gogozko gabetasun, eramanpen eta ilduraz, Asis'ko Prantzisko donearen onoimen berak bere onoimenetan agertzen zirala zirudin. Iruga'eren Ordenako aintza da. Iruga'eren goen Zaindari a'riga'ria.

1207'ga'eren urtean Presburgo'n ikusi zuan mundu onetako lenengo argia, ta Europa'n ziran jargoi ditziko'erenetako batean, aunditasun eta aberastasunen artean, erabilia izan zan bere u'rezko seaska. Il'ga'eren Andrés Hungria'ko e'regea ta Jertrudis Corintia'ko *dukesa* izan ziran bere gurasoak, belaunetik belaunera asita *Carlo Magno* arkitzera'ño e'rege-o'ñordekoak

biek. Beren jatofia geiena goraltzen zuana ordea etzan beren odol garbia, geiena goraltzen zuana aurrekoen onbideak ziran, beren odolekoak bait ziran Esteban eta Ladislao doneak, Hungria'ko erregeak; Eduvigis donea, Silesia'ko *dukesa*, ta Bohemia'ko Ines donea. Esan diteke, odolez batera, Isabel aurrekoen onomen guztien jabe egin zala, ta etzien gutxitzen utzi; bestela ditzikoñago egin zituan, esan eziñezko balioa ematen ziela. Olaxe eman zien ondorengoei donetasunaren eredurik biziena ta bikañena: etziran utsik gelditu bere irakasbide onak Isabel donea, Portugal'ko erregeña, Luis donea prantziskotaña ta Tolosa'ko obispoa, Kognegunda, Zolanda, ta Margarita doatsuak bere onordekoak ziran-ta.

Bataio donearen bidez jator-obenefitik garbituta, Espiritu Santuaren eskeñak ugoaldeak bezelatsu etoñi ziran bere animara, bere doiaz egikoña egiñaz, eta aurtxoaren biotz-egikera guztiek Jaungoikoarengana zuzenduaz. Gure gaztetxoaren lendabizirik zerurako eratua zegola esan diteke.

Isabel jaio zan aldi berean jaio zan ere Turingia'ko jauregi-nagusian aur bat, Luis jañi zioten izena aur oneri, Isabel'ekin batua izan bear zuan egunen batean. Jaungoikoak aututako anima bi ziran, maitetasun batean elkartzeko, ta onbidietan batek besteari lagun-egin eta elkarren eusle izateko.

Lau urte zituan Isabel'ek Turingia'ko *dukearen* izenean Andres'i bere alabatxoaren eskua eskatu zitzaionean Luis'i emazte-gaitzat ema-

teko. Egikizun onetarako bialduak agindurik zeukaten, baldin Andres éregeak baiezkoa ematen bazien, Isabel Turingia'ra eramateko, orduan oitura zanez, érege-etxean azi ta ezia izan zedin, geroago bere buru izan bear zuana.

Baietz bada, erantzun zien Andres'ek, eta jaun aien eskuetan bere alabatxoa utzi zuan, Turingia'ko jauregi-nagusira eramana izateko. Esan bearik ez da poz eta atsegin aundiz artua izan zala.

Bizitegi beñi onetan Isabel berez ona, gozatsua ta laztana izanik, bere urteai zegokien baño adikoñago ta zintzoago atzaltzen zan, eta bere ingurukoei on-eginiñak ondo eramaten zituan: egundaño etzan aseñe ta neuriñgabe ikusi. Irakaslari on baten mendean azi ta ezia izan zan gure gaztea *erlijio*-ikasgaietan, bere biotza auñerata geiago onbidietan joan zedin. Biotz au ondo eratzeko beti izan du añeta berezia Espiritu Santuak. Bakarti ta otoi-zalea zan, eta otoitzean goraltzen zuan bere Egilea gogorik sutsuenakin. Bere ardura guztia Jaungoikoaren auñean ibiltzea zan, bere Ontasun maitea burutik ez galtzeko asmo biziak arturik. Au dala-ta uzten zituan jostaketa guztiak bere maitearekin egoteko. Baña berotasun aundiagoen ugoaldeak nabaitzen zituenean gelara joaten zan, Jaungoikoarekin doai ta emaitzak ugariago artu zitzan.

Esan eziñak dira Jesus eta Eukaristia'k zenbat indar zuten bere biotzean. Au dala-ta bilatzen zituan bere atsegin guztiak elizan. An ikusi oi zan apalki ta ongira-bide bere begiak ja-

sorik *Sagrario*'aren aurrean, Jesus *Sakramentatuaren* ondoan eskuak zerurantz zituala.

Oiturazko ibilaldietan inoiz etzitzaion aztutzen elizan sartzerik, *Sagrario*'an guri digun maitetasunez sutan dagoan Jesus *Sakramentuari* ikustaldi bat egiteko; eta elizako ateak itxita arkitzen bazituan atetik kanpora auzpeztuta jañirik, Jesus Eukaristiari otoi-egiten zion. *Ebanjelio*-edesti gozoak indar aundia zuten bere anima ta eginkizunetan: an edesten diran gertaerak irakurita, mara-mara malko mardulak ixurtzen zitzaizkion begietatik, Jesus'en jaiotza, aurtzaroa, bere bizitza nekatsu ta eriotz gogoña irakurtzean batez ere. Baita bere biotza ere sututzen zitzaion lenengo aldietan izan ziran santuen bizitzak irakurita, beren biziera gogoñak ilduraren egañi aundia ematen zion. *Martirien* egipen leñenak berotu ta eratzen zuten geiena, aurtzarotik asita bizialdi guztian eraman bear izan zituan eraso ta goraberak onartzeko.

Zortzi urte zituan, aita ufuti zala, Jertrudis bere amaren ilberñi samingaña artu zuanean. Bere mendekoak erail zuten. *Dukeak* asko naigabetu ziran ilberñi onekin, eta berak beren aldetik zigortu nairik jañi ziran gaiztakeri au; baña Isabel'ek ez-añen oñelakorik egiteko esan zien, barkapena eskatuaz erailien alde.

Urtebete etzan izango malko samin mardulak ixuri bear izan zituanean Isabel'ek, *dukea* bere aitagiareba-gaia il zalako, bere naigabe guztiak Jaungoikoari eskeñiaz, onela galtzen

bait zuan beragana etoriko ziran aurrezka  
biurietan bere aldeze izango zana: laister  
etofi ziran ekaitz beltzak bezela aurrezko  
Isabel'gana.

*Isabel'en lenengo aurrezkak.- Turingia'ko dukearekin ezkontzen da.- Bere maitetasuna ta beartsuak.- Eukaristia ta Pasio-zalea.*

---

Onbidea txarbidearen aurka dago, ta zuzen bizi diranak asefe antz-egiten diote griña txaren mendean bizi diranei. Onetzaz gañera onoimenak ezin eramán diran zimikoak egiten dizkiete askori. Onak eta elizkoiak izango diranai bada; baña arokeri-aizeak eramánik, geiegi sartzen dira munduak onartzen dituan oiturretan: anima oek egiz onak izan ditezke, gizalege oietan nâstuko ez balira. Emendik dator onelakoak egiazko onbideari begi txarez begiratzea. Mota bi oetakoak geienean bizi izaten dira efege ta aundizkien jauregietan, eta orduan ere ala bizi ziran.

Isabel'en bizibidea etzan Sofia *dukesa* ta bere jauriko aundizkien gogokoa. Ona izanañen, Isabel'en bizierak zimiko aundiak egiten zizkion Sofia'ri, ondo eskutatzen bazekien ere, bere burua goien goienean zeukala gogorata; ta aundizkiei barai ere goralean ematen zien bere apaldasun eta ezereztasunak. ¿Nola etzuten bada goñotatuko?

Isabel'ek bere senar-gaiaren afeba Ines zuan laguntzat. Biok urezko burestun mardulak buruan zituztela joaten ziran elizara; Isabel'ek ordea bere burestuna kendu egiten zuan eliz-

atarian, andik ateratzerakoan beñiz buruan jartzeko. Egintz au etzuan begizkoa Sofia *dukesak*, eta egun batean galdetu zion, «Zer dala-ta kentzen dezu burestuna (koroia) elizan sartzen zeranetan? — Ezin dezaket. erantzun zion, burestun diztikor eder ori buruan eraman, nere Salbatzale maitea arantzaz burestundua dagon lekuan». Etzuan ondo artu kristau-erantzun jakintsu au *dukesak*, eta ordutik asi zitzaizkion alako bekaitz eta esparen zera batzuek, egunetik egunera geitzen joanik, ez dakit zertara jo zuten azkenean ere.

Ori asko etzala ezin ikusi zuan *dukesak* Isabel jostaldietatik urun ibiltze ori; baña bera jolasketan sartzen bazan ere, alik eta gutxiena izaten zan; jolas oetan igaro bearko zuan aldia, beartsuei on-egiten, bere mirabeai erakusten era geideai laguntzeko bear zituenerako eratzen igarotzen zuan. «Komentu batean sartuta egon bear luke, esaten zuan askotan *dukesak*, «emen jauregian bertan mojatxo bat dirudi, ta bere buruari dagokionez ez dio begiratzen, emengo oiturak artzeko».

Itz oek zirala-ta begiratzen zioten Isabel'i jauregiko aundizkiak, beren biziera aña ta goratia gaitzetsi nairik bai litzan, bere kaltez, ezer esan gabe ixilik egoten bazan ere: une ontatik asi zan zapokeri guztia. Beren iritziz etzuan Isabel'ek bururik asko, ta etzan Turingia'ko *duke* baten emazte-izateko aña: «obeto izango litzake, esaten zuten, Hungria'ra biurtzea, edo jaurigiko aundizkien bati emaztetzat ematea.

Isabel'ek ondo ezagutzen zuan bere inguruan gertatzen zan guztia, erne zeukan begia

aldamenekoen aldakuntzak ikusteko, bere kaltez gofoto ta txarkeriak asiak bait ziran. Baña laister zuzentzen zan bere Salbatzale maite bakaña-gana, ta eskatzen zion ezezala bakañik utzi, ta uferatzen zitzaizkion eraso ta ekaitzaldietan, bere alde ardura guztia izan zezala. Jesus'ek poz-emanik zintzoa izateko gogoa berotzen zion, beregana etoñi beañ zuten eraso ta goraberetan langunduko ziola itz-emanaz. Alaxe da: etzuan bakañik utzi. Luis *dukearen* biotza iñoiz, baño zaletuago zegoan Isabel'etzaz bere onbidea-gatik batez ere, ta bere alde jairirik atzera-egin zien bere etsaian burubide txarai.

Turingia'ko Luis emazte done baten jabe izateko ainbat bazan, eta emazte ori eman zion zeruak. Jaungoikoaren bilduñekoa, bere agintza doneen zaitzalea, *Printzipe*-gai batek izan bear zituan aundiarteko onoimen eta tasun goragañietzaz gañera, *Erljio* doneak erakusten dituan onbide guztietzaz apaindurik zegoan. Maite zuan Isabel, bere ontasunagatik batez ere, ta ezin zezaken liluratu gabe ikusi, bere oneraspen eginkoña ta era berean emankoña, beartsuenganako bere maitasuna, ta bere eramapen aundia. Luis eta Isabel bi anima aundi ziran ontasunez maiteminduak, aurrekoen izen onaren eusleak eta beren onbidien jañaitzaleak. Jaungoikoak, len esan degun bezela, biok alkar maite izateko egin zituan eta 1221 gañen urtean onetsita elkartuak izan ziran Ezkontzako *Sakramentu* donearen bidez.

*Dukeak* bere eztaiak gutxitan ikusi oi diran bezelako jairik aundienakin ospatu nai izan zituan, aundizki ta eñiei adierasteañen nonbait,





Isabel Jesus'en Bizitza irakurtzen.

zenbat oneritzi ta goraltzen zituan bere emaztearen ontasun eta onbide aundiak, aspaldixamar gaitzetsi ta baztertuak bazeuzkaten ere.

Azaleko on-itxurak itzaskoñak izaten dira geienian aundizkietan, eta askotan zuzentasunaren estalpeak artzen ditu. Obeto izango litzake zuzentasun ori beste gaietan bilatzea.

Aundizkiak asma'al guztiak asmatuta bazeuden ere Isabel'en kaltez, jaiburu aietan egundalako atsegin eta txaloak atzaltzen zituzten: *dukesa* beñiaren kaltez beren biotz bañuan zekarten naspila ezkutatuta, egiazko pozak arturik bailiran, zorionik suttsuenak ematen zizkaten.

Aundizkiak eta eñiak txaloka ¡gora ta gora! zerabilkiten beren *dukesa* beñia, ta alde guztietatik mendetasuna ta añidurak artzen zituan.

Baña ondo ezagutzen zuan Isabel'ek goraltz aiek, eta ematen zitzaion aintza, azal-azalekoak zirala, bereala zimeldu ta legortzen diran lore antzekoak: au dala-ta etzan itxutzen azaleko omen oekin, bestela Jaungoikoari bakañik atsegin eman nairik, bere biziera beñian ildura eta otoitz geiago egiten asi zan.

Ildura oituraskoa izanik, egunetik egunera geiago indartzen zijoakion; bizi izateko bear zuana doi-doi jaten zuan maian eta au tolesgabe ta itxurarik gabe: bere egitekoa zanez inguruan eta aurrean zeuzkan beartasunak arintzen jardutzen zan, oregatik lañitu, ta Jaungoikoaren semeak izan bear duten alaitasun gozoa galdu gabe.

Beñere etzuan galdu gabaz jaikitzekeo zuan oitura, izadiak otoi-egitera deitzen duan garaian, luzaro gogarketan edo Jaungoikoari

goraltzak abesten, eta ildura gogořetan jarduntzen zan.

Bere senařak, *Printzipeak*, ixilik onartzen zuan bere emaztearen bizibide au, ta bere eginbeařak betetzen etziola ezertan eragozten ikusirik, Jaungoikoari eskeřak agertzen zizkion, ain emazte ona eman ziolako; ta gero ta batuago zegoan Isabel'ekin bere garbitasunaren aldezle, bere eramankizunen lagun, aita ta adizkidea bezela.

*Dukesa* donearen onoinenik goragařiena, bere zeingia esan diteke, Kristoren irudi biziak diran gaxoen aldeko ongina ta eřukia zan. Bere biotzean lenengo ařera beartsuak zuten, eta zenbat eta gabetasun gořiagoan egon eta zauri naskagařiz beteak izan, poz eta atsegin aundiagoz laguntzen zien. Egun batez buruguztia zauri bizi bat egiņik aurkeztu zitzaion gaxo bat, eta danen artean berezita, eraman zuan leku bakar batera, moztu zizkan buruko ileak, garbitu zion zauria, ta azkenik burua ondo ipiņirik, eřukitsu ta bigunki alditxo batean bere magalean euki zuan, oņaze ta miņak len ezin eramanik egon zan buru gaxo ura.

Berari lagun egiten zioten jauregi-andre batzuek eginkizun onetan arkitu zuten, etzitzaien ondo irudi izan beren *dukesa* lanbide onetan aritzea, ta ausarki ta gogor asefe-egin zioten. Berak ordea pařez pařez artu zuan bere mendekoen eřieta au, guztiok zeruratzeagatik munduko ezespenak eraman nai izan zituan Jesus-Jaungoikoa gogoratuta.

Urtero, Ostegun Santuz, Jesukristoren mirabe zintzo onek, amabi beartsuei apalki oņak garbituta, ukar edo *limosna* on bat ematen zien.

Bein, esandako egunez, legenartsu asko erakari zituan bere ondora, ta beren esku-oñak garbiturik zaurietan mun-egin zien. Gaxoakin biotz-bera zan beti, eramankoña, alaitsua. Inoiz etzan ikusi gogaituta zegoala adierazo al zezaken ezagungaririk: beñere etzitian añen-egin gabe uzten, une guztietan Jaungoikoaren naia bete zezatela. ¡Zenbat dira gorputzaren osasuna ez ezik, animakoa ere iritxi izan dutenak Isabel'en eskariz eta bitartez!

Gure doatsu onen erukia Kristoren Biotzetik zetoñen, *Eukaristia* ta *Pasio*'ari zion maitetasun sutsutik. Meza entzutean bere ezkutapen edo *misterioak* gozoro gogarturik, bere anima liluratua geratzen zan. Aritua ta aundietsirik egoten zan *Aldaretako* Jesus gure Salbatzale maitearen almen, jakintza ta maitetasun gorgaña ikusita: *Sakramentu* done aunda munduaren Erospen oroigarri befikoa, Jaungoiko-Gizonaren Jaketa, ta gure berpiztuera ta gero gozartu bear degun aintza edo zorionaren baitura maite-maitagaña. Jaungoikoa ainbat apaletsita ikusirik, beartasun eta ondamenetik guztiok onez aterata bere mai donera eramateko, ez du beñere inork antzeztu gabe utzi bear Jesus Jaungoikoaren Semea, ez du beñere apaletsi gabe geratu bear, beartsu ta gaxoei laguntzeko. Legenartsu ta beartsuak eregien Eregearen maian artuak izanik, ez nolainai, seme maiteak eta zeruko jabegaiak bezela baizik, ez dute baztertu eta ezespetuak izan bear, ezer ez bailiran. Gogoketa oek ibiltzen zituan buruan Isabel'ek esan ezin diran ezkutapen oetzaz oroitzen zanean.

*Sagrario*'ko gozotasunetik saritan sartzen



Isabel gaztelutik bera elbari bateri ogia emateko.

zan Isabel Jesus'ek *Kalbario*-mendian eramán  
zítuan mín-oñazietan, au da Nekaldia gogartzen,  
beti berekin zeramakien-ta. Azkenik ez  
duan maitetasun iturria dan Kristo Gurutzatua-  
ren Biotzetik zetorén bere sendotasuna bere  
burua ilduratzeko, ta bere maitetasun gordai-  
rua, beartsuen artean eskuak zabaltzeko: beart-  
tsuak, estalpe batean jaio, gabetasun gorie-  
nean bizi, ta burua non etziñik etzuala il zan.  
Jesus'en irudi biziak bait dira. Ona emen zer  
oarkerak egiten zítuan Isabel'ek. Au zan beart-  
tzuei zien maitetasunaren ezkutukia, *ebanjioak*  
dion bezela,

### III

*Prantzisko'taíen Ordena.-Isabel eta Prantzisko donea.-Irugaíen Ordenan sartzen da.  
-Santuaren soín-gañekoa (kapa).*

---

Garai artan zabaltzen zijoan Alemania'n Prantzisko donearen Ordena, an lenago sartu-ziran praileak gora-bera asko ikusita, alden-du egin bear izan bazuten ere. Prantzisko'k beíz ordea 1221'gaíen urtean Portziunkula'n egin zuan Batzaíean ango mixioetzaz itz-egi-ñik, larogei praile ara joateko eratu ziran, eta oneratze aundiak egin zituzten luíalde aietan. «Érege Aundiaren ois-egile»-ok iñon baño obeto artuak izan ziran Turingia'n, ango *Prinzesa* Isabe izan eírdian. Agudo geratu zan liluraturik Isabel Asis'ko Serafiñaren semietzaz, alde guztitan Ebanjelioko onbidien eta eragi-ñien eredutzat aurkezten ziran-ta. Bere iritziz praile on oien etoíera luíalde aietara, ondo ta ondo zaitu bear zan zeruko esku-agertzea zan. Au dala-ta agindu zuan Eisenadi-uri baíuan komentu bat egiteko. Isabel zan *apostolu* beí oen laguntzalerik aundiena; esan diteke ama maitatzale bat zala, bere semien ona bilatuta ezeren beaíean uzten etzituana. Berak jauregi-andreak lagun egiten ziotela, ardatzean egin, eta bere eskuz oialtzen zuan praileak janzteko bear zuten oiala, ta prantziskotaíen onbide ta ikastietzaz jarduntzen zan, lanean ari zan bi-tartean. Jardun aldi oetan bein, Andre gora-gaíi onek, gain-jazkia bizkaíetik artuta buru-estalki batez burua estalirik, bere geroko bi-

ziera iragañiaz esaten zuan: «Onelaxe jantzita ibiliko naiz eskean, Jaungoikoaren maitetasunez eskale egiten naizenean».

Ezagutzen ditugu Jaunaren mirabe onen onbideak eta Espiritu Santuak artu zituan erak onetik onenera eramateko, ta Isabel'ek zein zintzo onartu izan dituan goi-emaitzok. Aurerantzean bere egiketak esaldi beria artuko dute, ez da nai bada edatsuago izango, baña bai biziago ta sutsuagoa: era gozoagoak eta zakonagoak artuko dituzte bere onbideak Prantzisko'ren semien ondoan eta Aita gozatsu onen babesean.

Laister jañi zan Isabel Jaungoikoak bialduta-ko gizon oen zuzenbidean, bere ardura ta jakintzagatik omen aundikoa zan Rodiger Aita aitor-entzuletzat artuaz: au izan zan lenengo aldiz Prantzisko donearen onbide ta gertaerarik oroigarienak erakutsi zizkiona. Zeruko ikasti oek iragarpen bat izan ziran Isabel'entzat, obeto esateko, bere serafindar gogo-barruan nabaitzen zuan alako agerpen bat, zertarra joko zuan jakin gabe. ¡A zein egi aundia dan Jaungoikoak bere apaizak artzen dituala animak onbidera eramateko, ta Espiritu Santuaren graziak animetan erein duan on-azi ta santutasuna ernatzeko.

Aita-lenaren donetasun eta egipenen gogarketak, eta Kristoren jañaitzale zintzoaganako ardurak eta maitetasunak betetzen zuten Isabel'en biotza, bere jañabide sutsuak egoki bait zatozen Prantzisko'renakin. Onen ikasbideak antzeztu nairik, onbiderik edereenen eredutzat artu zuan, bere zaindari ta irakasletzat aututzen zuala. Gure Aita Prantzisko'ren animen





Isabel beartsuei limosna ematen.

onginaia, ta kristau-maitetasun bete eziña nabaitzen zuan gure anima doatsu onek, dio Wadingo aitak. Praile aien bidez ezagutu zuan Irugañen Ordena, bere elburua, bere *grazi* ta ongiak, bere jatorria, ta kristau-arteetan izan zuan zabalpena.

Asis'ko Serafin onek eratu zuan Ordena ariagarri onetan, laister agertu zuan bere biotzeko naikiak beteko zituan bide egokia: Jaungoikoa ta geideaganako maitetasun utsa, luñeko gauzen atzerapena, orbangabeko garbitasuna, on-zaletasun sutua, onketa-ardura, bizierarik onen-onena.... onegatik utzigabe sendia (familia) ta zeruak eman zizkan iru semeak.

Bear zan baimena Luis bere senaari eskatu, ta beragandik baiezkoa iritxita gero, laister artu zituan bideak Asis'ko Santuarekin elkar aditzeko. Turingia'ko *dukesa* zan Alemania'n lenengo Irugañen Ordenakoa, ta zintzoki bete zituan Araudiaren agindurik nagusienak, guztiak ezin zitzaken ezkerro, bere bizierak eragozten ziolako. Araudiak agintzen zuan guztia gerorako zeukan.

Praileak jakin-erazi zioten Prantzisko Aitari zein irabazi aundia zuten alaba on zale aundizki artan, bere egipen onak distiatzen bait zijoazen Turingia guztian. Eta aundietziz eta esker onez beterik itz-egiten zuan Santuak bere alabatzaz Kardenal Hugolino'rekin. Kardenal onek Alemania'ra egin zuan bidaldian, Turingia'ko jauregian ezagutu zuan Isabel eta bidezkoa irudi zitzaion Eskaletxoaren poz eta atsegiña jauregi artan geitzen zijoazen onbideak ikusita: Kardenal ospetsuak ezin zezaketen utzi onetsi gabe, bi anima oen arteko

gogo-maitasuna. Bera izan zan bein eskatu ziona Santuari bere esker-agertzez zerbait *dukesa* onari bialdu zezaiola. Berealaxe kendu zion Serafindar Aitari soigañekoa, ta agindu zion bere alaba gogokor Isabel apalari bialtze-ko, bere goizaletasunaren opariz, eta Ordenari egiten zizkan mesedeakatik esker-on agertzez. Eta esan zion: «Nik nai det zure gogoz (espirituz) beterik dagon bezela, bere jabe egin dezazula, Elias'ek bere ikasle Eliseo'kin egin zuan bezelaxe». Santuak atsegintsu men-egin zion adizkide aundi onen aginduari, ta bere naikiak betetze-aren bialdu zion bere ikasle zintzoari esku-erakutsi apal au eskutitz batekin: eskutitz onetan agertzen zion bere baruan nabaitzen zuan poz eta atsegiña Jaungoikoak eman zizkan *graziakatik*, eta *grazi* oetzaz egiten zuan onartze goragañiak aditzen zitualako.

Soin gañeko au (1) jazten zuan anima donetsi onek zerutik esker berezien bat artu nai zuenean, ain aundia zan oniritzi ta oneraspena santuagandik artu zuan ongi nai onegatik. Aurerontzean estuagoak izango dira Irakasleakin batuko duten lokañiak, eta bere bidauerekotzat beste praile bat, Manburgo'ko Konrado aita arturik, bere etsaietatik garaitzale aterata gero, biderik zalenetatik donetasun-mendi goien goienera igoko da. Ogei urte oraindik etzitian izango *dukesa* doneak, bere aitor-entzuleagandik biziera on-ona egiteko egiazko esku-liburua (araudia) artu zuanean; eta agindu zion gañera, baldin alargun egunen batean

---

(1) Beljika'n Kanoin-urian Aita Kaputxino'en komentuan dago gaur soin-gañeko au.

gelditzen bazan. Jaungoikoari osotoro eman-  
da, azkengabeko mendetasuna ta garbitasun  
osoa gordeko zituala.

Urango urtean Prantzisko Portziunkula'n,  
gozoro il zan, eta Turingia'n bere donetasuna-  
ren eta egiten zituan mirari arigarien otsa en-  
tzutean, geiago piztu zuten bere alaba berezia-  
ren biotzean Aita maite-maitearen antz-bideak  
artzeko sua.

#### IV.

*Turingia'ko gosetea.-Isabel'ek beartsuak arintzen ditu.-Gaixoetxeak.-Añezka beñiak. - Mirariak.*

---

1225'gañen urtean Turingia'ko *dukea* Italia'n Kaiseñari lagun-egiten zion bitartean, gosete izugañi bat sartu zan Alemania'n. Gosea leku guztietan zabaldu zan, eta luñalde batzuetan asko iltzen ziran. Eginbear beñia atzaldur zitzaien Isabel'en azkengabeko urko-maitetasunari, ta bazuan bere esku emalea nori ta non zabaldu.

Bere senar onaren biotz bera ta emalea ondo ezaguturik, onek erati artan egingo zuana berak ere egin zuan: baño egiten zuana bigunkita biotz zamurarekin egiten zuan Kristoren beartsuen alde liluraturik zegoan anima eder bateri zegokion bezela. Ondo gogoratzen zuan, buru-egiten dutenak, beren mendekoakin gurasoak bezelaxe izan bear dutela, Jaungoikoak beren ardurapean jafi dituan ezker. Kristau-gogapen ori erabiltzen zuan Isabel'ek eruki-egite guztietan beñere beragandik aldenduga-be, lañitasun aietan batez ere.

Erükiz beterik bada bere ardurapean sendi osoak artzen ditu Isabel'ek, eta egunero bear dutena emanaz, añen-egiten die goiko egaztiak eta luñeko aberaak bazkatzen dituan Aitagan itxaropen guztia jañi dezatela. Gaxo asko gau-

za etziralako, ta gauza izanda ere, jauregian dienak ezin sartu zitezkelako, mendi egalean gaxo-etxe bat egiteko agindu zuan, gaxoak zaitzeko bear ziran tresna guztiakin, ta an arkitzen zuten eguraldi txarretan beren aterpea ta bear zutena, oia nekaldietan atsedeen-egiteko, sendagaiak beren gaitz-miñentzako, ta gañerakoa gabetasun neuriz. Egunero jexten zan Isabel gaxoai ikustaldi bat egitera; ikustaldi onetan galdetzen zien, ezeren bearrik bai al zuten, bere itz gozoaz poztutzen zituala; emen begiratzeko zuan sendagaiak ondo ote zeuden ala ez; berak bere eskuz askotan sendatzen zituan beren zauriak; oiak moldatzeko ta zeregin apaletan jarduteko etzuan aunditasunik ezagutzen; ta au guztia naskagabe, bigunki ta maitasunik aundienaz egiten zuan sendi (familia) batean Ama arduratsu batek bezelatsu.

Beste gaxo-etxe bi egiteko agindu zuen Eisenadi, uri berean, aietako batean gaitz bereziak jotako ume asko sartzeko asmoz. Gaxo-etxe auetan atsegin izaten zuan *dukesa* doneak gaxo-zai egoten, ume erukañi aietan maitetasunik aundiena agertzen zuala: beren zauri naskagañiak garbitzeko ta berai mun-egiteko etzuan bildurik izaten.

Bederatzieun eta geiago ziran andre onetsi onengandik eguneroko ogia artzen zutenak, bai bere gazteluan bai gaxo-etxietan, bai norberak beren bizitegietan; eta etzan aztutzen bere aldeñian bizi ziran gaxoetzaz ere: beren etxeetara bialtzen zien bear zutena, ainbat geitzen zan bere maitetasuna, ta alakotxea zan bere ardura.

Bere uste osoa Jaungoikoagan jañirik, etzuan



Isabel gaxoei zauriak sendatzen.

beñere etzi goiko-laguntzak utsegingo zionik; etzuan itxopen au galdu eratirik lañienetan ere, ziur bait zegoan Goikoaren ardurak, aldi guztietan bear zuana eratuko ziola; ta alaxe zan, askotan ikusi oi zan ganbaretan garia ta bere eskuetan ogia ugaritzen.

Baña Isabel'ek beartsuei on-egiteko, ta maitasun-ongilea gaxoen alde agertzeko zuan ardura onek, guztien aundietsi ta goralpenak ernatu beañean, espak zapokeri asko sortu zituan: Turingia'ko aundizkien biotzetan gaizkinaia asi zan sututzen; orduarte otzitua zegola bazirudin ere, naspil aundiagoz bizirik eta be-roago atzaldu zan.

Italia'ra egin zuan bidalditik *dukea* atzera biurtu bezin laister, arduradun eta jauregiko aundizki guztiak berebizikoak asi ziran *dukesa* bere emaztearen kaltez esaten, zalakuntzarik gogoñenak egiten zizkiotela. Berak esaten zutenez, eñidiak eraman zuan zigorkadarik gogoñena etzan gosetea izan, Isabel *dukesa* bera baño, gaxo-etxeak egiten eta beartsuei laguntzen eralki zuanaz, eñidiko dirutza luña jorik utzi zuan-ta. *Duke* ona ta kristau zintzoa bere emaztearen alde jañi zan, esanaz: «Oñetik ere oraindik nere gaztelua zutik dago: utzi nere añebari—onela deitzen zion bere emazteari—bere eñuki-egintz oetan jañaitu dezala, ez gera ogi gabe geratuko, beartsuei ta gaxoei laguntzen dion arte».

Erantzun gozo ta zoñotz onek oraingo z ixildu zituan Isabel'en maxiatzaleak, et aagertu ere bai Luis'en zuzentasuna ta bildurgaitza: beti bezela maite-maite izan zuan bere emaztea. *Dukeak dukesaren* alde egin zituan agirizko





Isabel'ek ogi-opillak arrosetan biurtzen ditu.

agerpen oekin, au bere burua oso garbituta geratu zan; baña etziran etsita gelditu bere arerioak, ezta aiendu ere etzituzten egin bañu-bañuan zeukaten zapokeri ta espa, zaila zanda: etzegoan gofoto bidea Isabel'ek egiten zuan bizieran, berak usten zutenez, ark bere zuzentasunaz eta onbidez txar-etsi-egiten zuan beren biziera nabarmen eta berokoian baizik. Luis bere gazteluan bizi izatea etzan asko izan beren bide txarrek eragozteko, ta sarixamar eramaten zizkaten Isabel'en kaltez zalaketa beñiak; au dala ta ori dala, zerbait bazuten beti.

Len esanik dago, Isabel'ek gaxoetan Jesukristo ber-bera ikusten zuala: *Ebanjelio*'ak esaten duana egia da, ta gertaera onek baietza ematen dio. Egun batez burutik oñetara legenez beteta zegoan gaxo bat etoñi zan gaztelura. Isabel'ek erukiz beterik artu zuan gazteluan, eta maiteki bere zauriak garbiturik, *dukearen* oera eraman zuan, au jauregitik uruti zegoan-ta. Baña oña, usterik gutxienez biurtu zan senaña, ta jauregi-gizonak esan zioten Isabel'ek egin zuana, bera zalatzeko eratirik ez bait zuten galtzen: egia zan egin zuana, ta ustegabe zareetan nãstua arkitu bear zuan. *Dukea* joaten da bere gelara aseñe biziz gogorki baztertzen du itzalkia (kortina), ta esan bezelaxe bere oigañean arkitzen du gizon bat luze-luze.

¡Baño au miraria! gizon ura etzan legendar-tsua, bere arpegiak dizdiz egiten zuan argi gozo batez, ta esan ezin bezelako garaitasuna atzaltzen zuan arpegi guztian: gañera gurutze batean atsedeen-egiten ikusi zuan, bere esku-oñak Gurutseari josita zeuzkala. Azkenik etsi bear izan zuan gizon ura Jesukristo ber-bera

zala. Turingia'ko Luis zentzun-galdua, itzikabe geratu zan mirari au ikusita. Bere aserea biotz-ikara gozo batean biurtu zan eta beün da gei-ago ezagutu zuan bere emaztearen santutasun arigaria.

Beste aldi batean Isabel bere jauregi-andreak lagun egiten ziotela, erira jatxi zan ogiz eta jakiz magala beteta beartsuei emateko, eta bat-batean eizitik zetoñen *dukearekin* arkitu zan. Oñela zamatua bere emaztea ikusirik, dana arituta, zer otezaraman jakin nai izan zuan; luzatzen dio eskua, zabaltzen dio magala, ta bere bizian ikusi etzitian laños zurigoñi ederenak ikusirik arituta gelditu zan.

Isabel'ek oraindik ere eruki-egintzetan jaraitu zuan bere etsaien erasoai, goñoto ta esame-sai begiratu gabe.

Dukearen eriotza ta onbideak. - Isabel'en  
atsekabeak. - Jaungoikoaren asmoak.

---

IX'gañen Gregorio Aita Santuak 1237'ngo, Jasokunde (Asuntzio) jai ondoren, kristau-gurutzatutako gudozte bat bialdu nai izan zuan Jerusalem-luñaldietara, Alemania'ko II'gañen Federik buru izanik, Brindis'en itxas-ontziak artzen zituztela. Turingia'ko *dukea*, gure Isabel'en senaña lau semeren aita ta bere animaren euslea izan zan Fedearen alde ta Kristo-ordekoari zion oneraspenagatik, bere deia entzunda kristau-éregeen artean lenengo gurutzatua izan zana. Bere asmoak etzituan eragozi Isabel'ek: ¿Nola eragozi? berak ere asmo aiek berak bai zituan. Bestela asmo aiei su geiago emanik, egun bitan, beren luñaldietatik atera zan arte, senañari lagun-egin zion. Agitz neka-tsua izan zan, luñean befiz alkar ikusiko etziran senar-emazte aien banatzea. *Dukesa* gaztea negañez zotinka zegoan norbaitek bere bafuan esango bailitzan, luñean etzutela geiago elkar ikusiko, ta Luis berak ere etsuan indar gutxi egin bear izan, Fedeak eskatzen zion banatze onen buru-eskeñia egiteko.

Sicilia'ko Troya urira etoñi zanean, II'gañen Federiko'k *dukeari* zegokion omendirik aundienaz artu zuan, ta itxas-ontzira baño len su-eri gaizto batek eman zion. Etzuan aintza-

kotzat artu gaitz au, etzuan uste nonbait bere bidaldia eragozteko ainbat izan zitekenik; baña berak ez uste izan-añen, laister artu zituan zeindasun lañiak. *Dukeak* bere bizia azkenetan zegola ezaguturik, elizakoak eskatu zituan, eta *Printzipe* on-ona zanez, espa gabe, guda-lekuan bailitzan, Jaungoikoaren naiera jañirik onartu zuan oparirik aundiena gazte-loreak apaintzen zuten garaian: eta Jaunari, Betiko Ardura danez, bere emaztea ta semetxoak utzita, Otranto-ondoan Agoñaren 11'an il zan onak eta zuzenak iltzen diran bezelaxe.

Fede bizikoa ta sutsua egintz on guztietan, eta iraunkoña onbidietan, omen aundikoa izan zan gaztea izan-añen: bere aintzarik goragiñena Isabel'en on gaia, omena ta elburua ezagututa, bere izena Isabel'en izenarekin batutzea izan zan. Santu-omenakin il zan, eta Jerusalen'en urtero egiten da bere jai-eguna.

Ilberri gañatz au Warbourg-urira eramán ber zuten jaunak etziran etoñi negua sartu arte. Isabel'en laugañen semea jaio zan garaian zan.

Au dalata oraindik gaxorik zegoan ama, ta *Sofia dukesak*, Luis zanaren a mak, artu bear izan zituan. Au bere eñeñari eman zizkan aldi txañetzaz azturik, onginaiz pizka bat agertzen asi zitzaion, eta era etoñi zanean, bere esker-gaitzaren beña eman zion Isabel'i. Gogoña zan bere biotz maitatian bat-batean sartu zan ezpata; baña bereala eskuak tolestatuta, begiak zerurontz, esan zuan: «¡O nere Jaungoikua! nere anaia il da! ¡Il da! Berekin il da mundu guztia neretzat». Negañez zotinka lasatu zuan bere biotza, aurenetik aldi berean artuaz beragana etoñi zitezken esker txar guztiak.

Isabel ogei urtekin gelditu zan alargun, sei ezkonduarik igarota.

*Amargura*'ko kaleak *Kalbario*-mendirara jo-  
tzen, du Isabel'ek min-bideak umetatik asita  
orainarte jaraitu dituan bezela. Mendi Santu-  
raño elduarte jaraitu bearke ditu; an bukatuko  
du bere buru-eskeña. Jaungoikoak agekai go-  
gořetan jaridu bere sinismena ta maitetasuna,  
bere anima gorazkaldi aundietara eramateko;  
mundutik eta beragandik atera nai du, Berekin  
batuago egiteko. Ořegatik darama eskutik  
*Kalbariora* Prantzisko bere Erakuslea gorpu-  
tzean zauritua izan zan bezela, bere lkasle  
maitea biotzean zauritua izan bear zuan.

## VI.

*Isabel bere semiakin gaztelutik botia da.-*

*Abere-etxe bat arkitzen du.-*

*Alaitasunik osoena.*

---

Ur-jautsiak goieneko amiltegitik leize-zulue-tara datozen bezelatsu etoñi ziran, Turingia'ko *dukea* il da gero, Isabel'gana bulartsuenari ere izua ta ikara ematen dioten min eta atsekabeak.

*Dukearen* ilberia artuta egun batzuek gero-ago, jauregi-gizonen burubide txarez eta joan-etoniak zirala-ta, Enrike, Luis zanaren anaia, egin zan eridi-buru, beretako batzuei aginduaz, Isabel bere ezkon-arbagana joan zitezela, ta bere eruki-egintzak zoro-egintzak zirala esateko, bere sendia (familia) laidotzeko obeak; esku zabalekoa ta emalea izanaz *dukearen* ongasunak ondatu besterik etzuela egin; azkenik bere utsegite guztien eru-nekez ongasun eta gaztelu gabe gelditu beariko zuala, ta berealaxe andik ateratzeko.

Bidagabeko ta inoiz ez aditutako aginte oek, ain era txarez eta gogorki adierazi zizkaten, jauregi-gizonen ausardia ikusita, Sofia *dukesa* berak, bere erena laztandurik erantzun zien: «Isabel nerekin geldituko da, ez du inok nere besoetatik aterako. ¿Non daude nere semeak? Nik itz-egingo diet». Utsak izan ziran *dukesaren* zuzen-eskeak, naspila egiña zegoan ta apaia emana.

Isabel'ek nai-ta-ez, bere aunditasuna ta on-bideak ikusi zituan gaztelutik atera bear izan zuan, beretzat eta semientzat bear zuana eramaten utzi gabe. Jauregiko ateak igaro baño len arkitu zituan bere semeak, eta andre-laguntzale biok, Guta ta Isentrude. bera bezela esku utsian jauregitik botiak.

Sofia *dukesa* bere seme zanaren umetxoak ala ikusita, asezez eta samintasunez geiago biotz-ikutua arkitzen zan. Beñiro eskatu zituan bere bi semeak Enrike ta Konrado, itz-egiteko asmoz, baño etzuan iritxi, *Printzipeak* beren ezkon-añeba ta beren amaren eskariz bigunduko ziran bildurez, ezkutatuak zeuden-ta. Isabel eta bere lau semeak gabetasunik goñienean bizi izan bear ko dute: Sofia *dukesak* ordutik maitetasunik bizienaz begiratzan zien, eta epaia utsian geratzeko egin zituan alegiñak alpeñik zirala ikusita, Isabel eta bere semetxoen negar samiñakin bere malkoak nâstu bear izan zituan. Guztiak eratuak zeuden alargun gaztea eskergaitzik aundienean amiltzeko.

¡Zein ikuskañi beltza jartzen zaigun begien añean! Isabel bere aur jaio-beñia besoetan, Guta ta Isentrude'k beste semetxoakin lagunegiten ziotela, gabaz, negu gogoñian eta oñez Wartbourg'ko gaztelutik bera bidean jartzen da: geimaitasuna agertzeko ta auzokoei on-egiteko len ainbat aldiz ibili zuan bide bera artzen du. Eisenadi-uriak ainbat mesede bere *dukesaren* eskutik artu zituan ezkerro, lagundu ta aterpea eman bear ko ziola zirudin; baña bai zera! gaztelutik emanik zeuden aginduak eragozten zuten, bera ta bere semeak zaitzen zituana, gogorki zigortua izango zala aginduta





Isabel bere semetxoekin gaztelutik botata.

zegon-ta. Uri onetako biztanleak agindu oek zintzoki betetzen zituzten, aztu ziran nonbait Isabel'ek egindako mesedietzaz; ate bakarik ere etzan zabaldu itzalgabeko *dukesarentzat*, naiz mara-mara negarez eta otz-dardaraz egon lau semetxoak. Eskertxarez otzituak zeuden biotz aiek.

Isabel'ek ezagutu zuan etzuala adizkide bat ere leku artan, eta etzitekiela ezer itxaro biztanle gogor aietatik. Jaunari eskerak uri-ondoan aberienzako estalpe bat zegola, ta estalpe onetan babestu zan. Bizileku negargari artan sartu bezin laister, espa maitatiak zuzendu zizkan bere biotzeko Jesus maiteari: an lasatu zuan maitasun-sutsuenaz bere biotza Jauna goraltzeko, azkenean ere zoriontsua zalako.

¿Ez al zan agian abere-estalpe ura bera Belen'go estalpea, otoitzean gogartu oi zuana, eta luzaro etzala beartsuak atsegintsu ikustatzen zituanean on-egiteko, beren etxe-apaletan aurkezten zitzaion bizitegia bezela? Bai: zorionekoa zan, eta bere izate guztia ezin aditzera eman diteken atsegin-ugalde batek beteta zeukan: au dala-ta Jaungoikoa goretsi bearean zegoan.

Alaxe da: gau-erdian prantziskotarak Jaunari goraltzak egitera deitzen zituan *kanpaia* entzun zuanean berak ere praile aien abotsakin berea batu nai izan zuan, eta Jaungoikoari eskeñi bere goraltz-oparia. Bere semetxoak eta andre-lagunak jaraitzen ziotela, abiatu zan bada elizara, eta oneraspen bizien eta beroenaz elizkizun artan egon zan: au bukatutakoan praileari aien-egin zien, beragana etoñi ziran zoritxar guztiakatik Jaunari eskerak agertzeko

*Te Deum* abestu zezatela.

¡Garaitzale ari gaia! ¡Asis'ko Serafiñaren ikasle bikaña! ¡Nor ez da oroitzen une onetan Prantzisko doneak erakutsi zuana, aditzera emanik zertan zegoan atsegin on-ona ta osoa? «Entzun eta idatzi zazu, esan zion Santuak Leon anaiari, atsegin on-ona ta osoa ezin diteke etorri mirariak egiteko almenetik, ez izkuntza askotan batean itz-egitetik, ezta gogonketan irauteko grazitik ere, eta... abar: norberak bere burua apaletsi ta Kristoren maitasunez, atsegiñez eta pozik miñak, iraiñak, laido ta nekeak eramaketik baizik... » ¡Ondo esana! Ikasbide au bera da Isabel'ek erakusten diguna. Biziera erukañi ura munduaren eta bere buruaren garaipena iritxitako onura (frutua) zan: izamenak len, aurretik, min artu zezaken ala bere burua apaletsirik ikusita, negar-egin eta oju-miñak baita eman ere; baña Isabel'ek au guztia azturik, etsuan animako pakea galdu ta pozez eraman zituan ezezpen ta txarkeri guztiak *Kalbario*-mendian Kristorekin batu-tzeagatik.

---

## VII

*Isabel'en utzipena.-Ezespenak.-Lokatz-artean  
-Zeruko atsegiñak.-Gaztelura biurtzen da.*

---

Isabel gabetasun goñi onetan geratzearen ondorenak, apaldasunezko erak eta ezin esandako atsekabeak izan ziran.

Praileak eskañi zioten elizako *kapiġa* bat, auñera gaba an igaro zezan; baña etzuan nai izan, bere ezkon-anaiaren aseñeak aiegana etoñiko ziran bilduñez. Bigaramonean Jaunaren mirabe au lenago berak ainbat mesede egingdako apaiz zâr bategana jo zuan; baña apaiz au etxetik bota beañean izan zan, baldin zerbait ematen bazion, bizia kenduko ziotela zematua zegolako. Jaun onek auzo-etxe batera bialdu zuan; baña auzo-etxe-onetan ere etzuten artu nai izan *Printzipien* bilduñez. Beraz lengo estalpe negargañi artara biurtu beaña izan zuan, eta an egon zan Jaungoikoak nai izan zuan arte.

Berari laguntzeko pralien ardura aundia zan, eta etziran gelditu, alik eta anima ongile batzuek arkitu zituzten arte bere semetxoak zaitzeko, goseak il etzitezzen. Biziari eusteko bear zuten ogi-gabe ikusteak, miñaren miñez biotza erdibitzen zitzaion, eta iltzen ikusi baño len, beragandik aldentzea erabaki zuan, eta uritik kanpora, bere gaizkilietatik uruti eramana izan ziran.

Semetxoak ondo jañi ezkerro etzitziaion ajo-larik Isabel'i, gabetasuna etzan aztuna bere-

tzat, esku-lanak egiten bazekian eta aterik ate eskean ibili zan egunak ere izan ziran. Ezin esan ala dira eraman bear izan zituan isekak eta laidoak, eta ainbat geiago min emateko ziran, mesederik aundienak egin zizkienetatik artzen zitualako. Oetako batek bein lokatz tartera bota zuan, zakarkeri ta erasoai itz gaizto oek erantsiaz: «ondo merezi den ori, ez unan bizi izan nai *Printzesa* bat bezela, ta orain lokatz tartean murgilduta bizi izan bear ko den: ez uste ez nik aterako autenik». Isabel eraman koña ta gozatsua beti, al zuan bezela lokatz artetik aterata, zilipurdi aietan atsegin izan zuala esan zuan: «ona emen nere jantzia lokatzez betea, len pitxiz apaintzen zana». Jaungoikoari eskeñak emanaz artzen zituan ezesp en eta laido guztiak, gaitz orokaren erale ta emalea Bera bait da.

Alaxe da: Isabel'entzat igaro ziran egun aietan, bere etsaiak garaile ibili ziran munduaren begietan, izaki guztiak atzendu zutela zirudin; baña Jesus'ek etzuan bere eskuetatik iñoiz utzi, negar samiñik aundienetan, beren neuriz, eta nai bada geiago, zeruko atsegiñez betetzen zuan, goi-gozotasunez ornitzen zuala. Baita Ama Maria ere atzaldu zitzaion goi-maitetasunaren ezkutapenak adieratziaz eta goieneko sinisgaietzaz adimena argituaz.

Bitartean beste bidea artu zuten gauzak: Matilde, Ritzunik komentuko moja-buruak, bere anai-aldetik Isabelen isebak. Sofia *dukesaren* bidez bere ilobak zeramazkien istilu goñiak jakiniñik, bere komentura eramateko aginduarekin gizon bat bialdu zuan. Bere ezkon-anaiak (Printzipeak) etzuten galerazteko ausardirik

izan, eta onela gozartu al izan zituan bere semetxoakin, aldi batez, bakarti artako gozotasunak.

Baita Egebert, Bamberg'ko printzipe-obispoa, Isabel'en osabak ere jakin zuan bere ilobari emandako estualdi ta lañitasunak, eta komentu bakarti artan zegola jakin-añen, bere luñaldera erakañi zuan. Gero Turingia'ra beñiro biurtzeko bideak eratzen asi zan bere jauregian bizi zedin; baña, alegiñak egin-añen, ori ezin iritxirik, Batteinsten'go gaztelua izendatu zion bizilekutzat, bere goiendeari zegokionez bizi zedin. Emen jauregi-andre biekin egiten zituan bere oneraspenak, gaztelura otoi-leku egiten zuñala.

Au asko etzalarik obispo jaunak ezkonbidietan jañi nai izan zuan bere iloba alarguna, ta ez nolanaiko ezkonbidietan gero, Il'gañen Federiko, Alemania'ko Kaiseñaren emazte egin nai izan zuan.

Bañan Isabel'ek bete-betean ezezkoa eman zion ezkon bide oneri: bere biziera erabakirik zeukan aitor entzuleari itz-eman zionez, baldin alargun gelditzen bazan, bere burua Jaunari osoforo emango ziola. Adibiderik jakintsuenak etziran asko izan bere asmoetatik aldentzeko.

Turingia'ko Luis zanari bidaldian lagun-egin zioten andizki batzuek beren *dukearen* korpuzkiak Alemania'ra biurtu zituzten, ta Bamberg'era eldu baño len, gazfigatu zioten obispo jaunari ta Sofia *dukesari*. Eliz-buru aundizki onek eratuazi zuan bear zan guztia *Printzipe* aundi onen korpuzkiak zegokien goraltzakin artuak izateko. Iletak eginda gero, Isabel'ek bere senañ maitearen gorputz-ezuñak gordetzen



Isabel prantziskotaren komentu-aurean.

zituan kutxa ura, aŕen, iriki zezatela agindu zuan, eta an bere aŕean, bat-batean bere burura etofŕi zitzaizkan, bera galtzez eramán bear izan zituan ezespén eta txarkeri guztiak, eta beŕitu zitzaizkan bere miñak eta atsekabeak malko mardulaz begiak lauzotzen zitzaizkiola; biozkada guztiak sendotasunez azpiraturik, orain da geiago onartu zituan Jaungoikoaren bideak. Baita iĕtan an arkitu ziran ere Luis zanaren anaiak (Printzipeak) eta Sofia *dukesa* beren ama.

Luis *dukearen* korpuzkiaĭ luŕa emanda gero, bildu ziran bere lagun izan ziran andizkiak, berak jakiñezian eta uruti zeudela gertatu ziran aldakuntza aietan, zer egin zitekean alkaŕi galdatzeko; eta erabaki zuten, Enŕike ta bere anaiarengana joanda esatia, beren gizabidea guztiz txarĭa, ta beren ibilerak okeŕak baño okeŕagoak izan ziralá. Andizki aietatik lau ziran eginkizun onetarako autu ziranak.

Jauregian aurkeztu ziran bada, beste jaunak atzetik zituztela, ta an Sofia *dukesaren* aŕean, lau oietako batek itz zoŕotz eta gogoŕakin esan zion: bere gizabidea txarĭa zala, bere egintzak gogoŕak; bere anai izan zanarekin esker-txarĕkoa izan zala: etzuala ondo begiratu Jaungoikoari egin zion iraiña; Turingia'n eŕidi guztia- ren kaltez jaŕi zuan orbana aundia zala.....

Itz zoŕotz eta bidezko oek entzutean Sofia *dukesak* negarari ezin eutsi zion, ta Enŕike *Printzipeak*, dana biotz-beratua ta lotsatua, itz-eman zion bere bide oker guztiak zuzendu-ko zituala, ta lau andizkiak arturik, Isabel'ekin ikustatzea erabaki zuan, eta iztatu berekin adizkidetzeko erak eta bidea.



Isabel'ek lu'eko gauza guztiak atzenduta eukirik, erantzun zien En'rike bere ezkon-anaiaren bialduai: «Nik ez det nai, ez gaztelurik, ez e'irik, ez lu'alderik, ezta neretzat eragozpena ta adimena oarkabetzeko izan diteken munduko beste gauzarik ere: baña esker onekoa izango nazai nere ezkon-anaiari, baldin nere ezkon-saria (dotea) biurtzen badit nere animaren ona, ta Luis bere anaiarena (berea bezela nere ere) ordaintzeko».

Orduan ikustaldi bat eskatu zan: ikustaldi onetan En'rike'k bere oker eta txarkeri guztien barkapena eskatu zion Isabel'i, ta au erantzun guztien ordez bere ezkon-anaiaren besoetan ja'ri zan nega'rez, eta Sofia *dukesak*, bere seme Kon'rado'k eta aundizkiak berak ere malco mardulak *Printzesa* donearenakin n'astu bear izan zituzten. Bere semien eskubideak osatuta gelditu ziran, eta Hermann lenen-semea Turingia ta Hesse'ko *dukien* o'nordekotzat ezagutua, bere osabaren jau'ri-aldian, bera gizarora eldu arte. Erabaki bidezko oek zirala-ta, Isabel'ek bere sena'ra il da gero, nai-ta-nai-ez utzi bear izan zuan Wartbur'go gaztelura be'riz biurtu bear izan zuan. Emen urtebete u'rian bizi izan zan, oneraspen eta gogarketari emana e'ruki-egintzak utzigabe.

## VIII.

*Isabel Jaungoikoari osotoro emana.-Ostiral Santuz.-Egiketa ta otoitza.-Zeru-jardunketak.-Mirariak.*

---

Alarik ere etziran bere gogokoak Wartbourg jauregian ikusten zituan gauza zoragarriak, ez ango aunditasunak, ezta araño etortzen ziran munduko joan-etoñiak ere; len ere ez bait ziztuzten bere biotzeko naikiak betetzen, eta orain gutxiago bete dezakete.

Gañera serafindar onbidietan goi-goraño igotzeko suak artuta zegoan, eta orain azkatua egonik, ez dio ezerk eragoziko, lenago bere biotzean ainbat maite zituan gauzak egiten; esan nai da, Irugañen Ordenako Araudiak (Éreglak) agintzen duanez bizi izaten, onela Asis'ko Serafiñaren erakuspenen neuriz, bere ikasle zintzoa izan zedin. Beraz bere aitor-entzuleak esanda, Turingia'ko jauregi goienetik alde-egin zuan, Marbourg (Hesse) urira joateko: antxe bizi izan zan lenago ere olezko etxe apal batean, bere semetxo ta lagunakin. Emen igaro zituan bere azken urtiak.

Isabel'ek naiago zuan *Klarisen* komentu batean sartu; baña bere semetxoai zor zien maitetasunagatik, Konrado aitak etzion utzi, eta biziera bakartia egitea erabaki zuan *prantziskotañen* gabetasuna eta apaldasuna antzeztuaz, Irugañen Ordenako jazkera gañetik eramanez, eta araudiz gañera, mojak bezela, iru zinitzak (botuak) egiñaz. Iskintza ospatsu onetarako autu zuan eguna, 1229'ngo. Ostiral Santu eguna



Isabel semeak utzita bakarik

izan zan. Kristau-sinisleak jantzi dontsuetatik erantzitako elizak eta aldareak ikustatzen zebiltzan garaian, prantziskotañen elizan sartzen ikusi zuten Isabel, bere semeak eta lagun-egiten ziotenak inguraturik, ta aldare nagusira igota, prailien eta bere *maixu* Konrado aitaren aurrean, bere eskuak aldare-ari gañean jarita, itz-eman zuan ospetsu mundua ta bere aundikeriak eta berak artean zuan guztia gogo onez uzten zuala, aurreantzean gorderik garbitasun osoa, mendetasun itxua, gabetasun goñiena. Buruko ileak moztu-azi zituan, eta soñeko añe bat jantzita, loki lodi batez geñia loturik, oñetakorikabe ibili izan zan eriotz arte. Une ospetsu au ezkeroz Isabel'ek bere ongasun guztiak, Prantzisko doneak nai zuan bezelaxe, beartsuen artean zabaltzeko utzi zituan, mojangaien sartu-saria edo ezkon-gaiari ezkon-saria emanaz, onela pekatutik aldendu zitezen.

Marburg'en gaxo-etxe bat egitek agindu zuan; gaxo-etxe onetan berak egiten zuan neskemetza. Naiago izango zuan eskale bat bezela eguneroko ogia eskean bilatzea; baña bere aitor-entzuleak eragozita eukirik, langile bat bezelatsu bere eskulanetik bizi nai izan zuan. Zeregin oetan eta beste eruki-lanetan beti lotua egon añen, etzitian beñere otoitza ta ildura uzten, gabaz batez ere. Jaungoikoak era askotan aztertzen zuan Isabel, bai gogo-legortasunez, bai barungo min eta atsekabez; azaleko eramakizunak etziran ezer aien ondoan, ain zoñotzak ziran, egia bada ere ezin esan alako atsegiñez betetzen zuala. Bere sentzugaltzeak sañi izate zituan, Jaungoikoak oetan agertzen zizkan ezkutapenak, goi-gozotasunak

zerizkioten iturriak izaten ziran. Baita zeruko aingeru ta santuak ere sarixamar ikustatzen zuten.

Ama Maria aldi batzuetan agertzen zitzaion, bere bizitzako ezkutapen eta onbideak adieraziaz, Bera antzeztu zezan; gañera bere bitartekotasuna agintzen zion Jesus'en aurrean, bere Gurutzean josita egon bear zuan ezkerre. «Murgildu zaite, esan zion Mariak, Jaungoikoaren z kongabeko itxas-baruan, ta nai dezuna eskatu ezazu, zure biotza ongasun aundiagoak artzeko nere Seme-Jesus'ek zabalago egingo du-ta.

Jesus'ek bere maitetasunean anima done au artzeko atsegin izanik ¿zer *grazi* emango ote dizka bere beartsu ta gaxoen alde? Gaxo-etxean egiten zituan ikustaldietako batean, jaiotzez itxua zan gizon bat arkitu zuan, begien antzik ere etzuan, gañerako arpegia bezelaxe begizulo biak aragiz josita zeuzkan-ta. Gure Isabel'ek bada dana kupitua Jaungoikoari bere alde otoi-egin zion, eta gero gurutzearen *zeñālea* eginda, begi biak eta betazalak berealaxe atzaldtu zitzaizkion, eta osotoro sendaturik gelditu zan.

Eraiti batean bere ikustaldia egin zion gaxo bateri, añaia jateko kutisiak eman zion, alegin guztiak egin-aren. inondik-inora ezin arkitu izan zuten arai ori, gaxoari atsegin emateko. Jesus'en izenean sartu zuan zuila putsuan, eta arai bat atera zuan, gaxoaren guztiz gogokoa, ta ori ez len ta ez gero inoiz arairik an ikusi etzalarik. Gertaera oek saritan berizten ziran: baña Isabel bere ustez ezereza izanik, bere bitartez, Jaungoikoak egiten zituan mirariak ikusita, apaldasun zakon-zakonenean nastua geratzen zan: Jaungoikoak atsegin izaten zuan, maitetasun garaitzalearen indahez ibiltzen zan biotzaren eskariak entzuten.

## IX.

*Isabel'en Bizitza.-Eriotza abestuz artzen du.  
-Mirariak eta donetzat irargaria.-Jaiak.  
Irugañen Ordenako Zaindaria.*

---

Ondo esan diteke Isabel'tzaz denbora gutxian asko ibili zala: 24 urte besterik etzitian eta santutasun-onuraz (frutuaz) beteta il zan. Bere bizitza garbi etengabeak etzuan edertugabe utzi bere anima, bere etsai-erasoetan ondo agertu zan bere lefena; geideaganako bere biotzean zuan maitetasun aitu-gaitzak etzion une bateko atsedetik uzten, bañu-bañuraño sartu zitzaion goi-maitetasunaren sugařak eře ta irazekitzen zijoazen-ta. ¿Zer geratzen zitzaion ba Isabel'i zoriontsuen saria artzeko? Oek ziran Jaungoikoaren asmoak.

Bein egun batez Jaunaren mirabe adoretua otoi-egiten ari zala, Kristo agertu zitzaion itz gozo oek esanaz: «Isabel ordua da bizitza ilkor ořetatik aterata atsedeen-egiteko: atoz bada nere maitetasunak eratu dizun burestuna (koroia) artzera». Bere eriotza uřian zegola jakite onek, bere animan naiki gozo-gozoak ernatu zituan, eta berealaxe Konřado aitari esatera joan zan, gaxorik zegoan-ta.

Lau egunen buruan gaitz gogor batek artu zuan. Gau batean oso bere artean bařendurik geratu zan, eta gero poz-antzean abesten ekin zuan. Isentrudes'ek ařiturik galdetu zion: ¿Zer dala-ta zaude ořen pozez? Erantzun zion Isabel'ek: «etzaite ařitu, Jaungoikoak aingeru

baten abotsak entzunazi dizkit-eta; nik orain nere abots argala batu nai izan det nere Egilea goraltzeko». Iru egun igaro arte etzuan inor ariu nai izan, bere aitor-entzulearen laguntzaz iltzeko obeto eratu zedin. Bere atzenaian (testamentuan) bi esakun oek utzi zituan: bere aitor-entzulearen burubidez gorde zituan ongasunak (gogoz utzita bazeuzkan ere) Kristo, bere beartsuetan, jabe egitea zan bat: gorputzean zerabilkien janzkia, beartsua zanez, eskatzea zan bestea. Elizakoak artu zituan inoiz ez bezelako adorearekin, eta gero ixilaldi bat igarota, beriz ere abesten asi zan. Azkenik Jesus'ek eraman zituan nekietzaz adoretsu itzegiñaz, bere biotz maitatia bero-bero egin zan, eta itzaldia utzigabe burua makurturik egilearen eskuetan jari zuan bere anima edera: 1231'go. Azaroaren 19'an il zan.

Bere ilberia zabaldu bezin laister bere gorputza inguratu zuan beartsu ta aundizki ta sinisle ozte aundi batek done deitzen ziotela, ta guztiei atsegin emate-aren lau egunean euki zuten lurrik emangabe. Bere iletan an egon ziran eliz-gizon guztiak bai apaizak, bai praileak, aundizkiak eta efi osoa.

Mirari aundiak egin ziran Isabel'en bitartez; amasei berpiztuak, eta gaitzaldietatik sendatuak asko ziran. Au dala-ta donetzat iragaritzeko bideak arturik, IX'gañen Gregorio Aita Santuak, 1236'gañen urtean Santu izendatu zuan.

Alemania guztia pozez zoratuta zebilen befi onekin, eta jai aundiak egiteko eratu ziran urango urtean Isabel donearen gorputza aldatu bear zala-ta. Efi guztietatik ordezkariak eruz

etofi ziran, baita obispo ta *printzipe* asko ere, beren artean Il'gañen Federiko Kaisera zutela. An aurkeztu ziran ere Sofia *dukesa*, Isabel donearen amagiañeba, gaztelutik bota zuten seme biok, Enrike ta Konrado, Isabel'en bi alabatoak, eta lenen-seme Hermann. Onelaxe gorraldu nai izan zuan Jaungoikoak bere mirabea, len guztiak laidoz eta isekaz betetzen zutena. Bere jai eguna, il zan egun berean ospatzen da.

Iru burestunekin margotu oi dute Isabel, neskatx, ezkondu ta alargun biziera onbide ederez apaindu zualako, ta bere magalean lañosak edo añai bat eskuan, eta beartsu zarpail batzuek oñetan dituala.

Asis'ko Prantziskoren ikasle, ta Santuaren soin-gañekoarekin artu zuan bere *espirituaren* jabeak, Isabel'ek, Serafin'dar on-eredu ederenak, goi-goiak jo arte, egiztu zituan, azkenik bere Irakasleak bezelaxe abesten iltzen zala.

Egoki bada, adibide ederez aurkezten zaie Irugañengoai, baita komentuetan bizi diranai ere, eredutzat Bera antzeztu dezaten. Antzezlari ta jañaitzale asko izatea Jaungoikoari nai dakiola, ta Anima Done onek lagundu dezala, Prantzisko'ren espiritua munduan zabaltzen. (1)

---

(1) OARA: Jañaitzen duan amargaren irakurburua euzkeratizallearena da.



## X.

*Isabel donearen eliza.-Bere kutxa.*

*-Bere korpuzkiak.*

Isabel 1236'gañen urtean donetzat iragaña izan zanetik, ilabete batzuek geroago, asi zan Alemania'n garai artan ezagutzen zan elizarik aundiena ta edeñena egiten. Bere oñañiak ezartzeko 20 urte igaro ziran, eta 28 eliza bera egiten. Alarik ere etzuten ziara bukatuta utzi. Oñañiak ezartzen igaro zuten aldi luze ura guztia lur gogoñik ezin arkitu zutelako izan zan, eta azkenean ere lanik asko izan zuten-eliz-egileak (1). Luzera 77 neurkin edo metro ditu, 28 zabalera, lur-azpira dijoazen ormak 14. Bi doñeak 100 metro gora dituzte, ta biok zeartzulo batez eliz gañetik batuak daude. Azaletik (kanpotik) eta bañendik eder-edeñena ageñtzen da. Baña baliorik aundiena Isabel donearen korpuzkiak gordetzeko egin zan kutxak ematen dio.

Elizak lau aldetara gurutze bat egiten du, ta gurutzearen beso-alde batean dago korpuzkientzat egin zan *kapila*.

*Kapila* lau *pilarek* eta lau aña-uztaik egiten dute, estalkia borobil antzera gora duala. Bañendik giz-irudi ta margo-irudi askok apaintzen dute, ta ara dijoazen etxegile ta eliz-egile guztiak añituta geratzen dira. Baña añañañena Isabel'en Korpuzkiak gordetzeko egin zan kutxa da.

Bañendik artez egiña izanik, azaletik, dana ureztua, zilañ sendoz estalita dago: godo-etxe baten irudia du.

---


(1) Arkitektuak.

Luzera metro bi ditu, zabalera ta gora bat berdintsu. Luzera alde batetik, eserita dagon Jesus-Erakuslearen irudia dauka, esker-eskui iruna apostolu. Beste aldetik Jesus Gurutzatua du, zuaitz tartean bailegoan: burualdetik aingeru bi dauzka Jesus'i burestuna jartzen diotela: Oñetan Joan eta Magdalena. Aingeruak uzten duten utsunean, Jesus'en jaiotza ta bere Berpiztuera atzaltzen dira: beste sei apostolu esker-eskui. Apostolu bakoitzak buru aldetik *Kredo*'aren esakun bat darama. Buru aldetik kutxak Andre Maria'ren irudi bat du, bere Semea besoetan duala. Ama-Semeak ikatz-ariz (diamantez) egindako burestunak daramazkite. Oin aldetik Isabel donea eskuan liburua duala dago. Gañean bi estalki ditu, gora bi *puntetan* bukatzen dutela, ta bere maldetan Isabel'en bizitzako gertaerak ezañita daude; bere senar *dukearen* azken agurra, gurutze-arkitzea, erastunaren esku-erekutsia, senar-emaztien laztana.

Kutxa au eder-edeñenetakoa izatez gañera, zilargiñen lanik arigañienetakoa dalako, gizirudi ta beren uztaiak ezin zenbatu ala pitxiz apainduak egonik, baliorik aundiena ematen zioten ikatzañiz (diamantez, esmeraldez, *perlaz* eta... dana josita zegoan. (1) Kutxa onetan sarturik egon zan Isabel'en Gorputza 1249'gañen urtetik, 1539'gañen urte arte.

Guztiok dakigu Lutero zala-ta zer nastek sartu ziran Alemania'n Eliza Katolikoaren kontra. Aldi ura arte etzan eregerik, ez printziperik, ez aundizkirik Isabel goraltzeko bere oneraspina agertzen etzuanik. Alemania guztia berea zuan: oregatik ainbat apaintzen zuten

(1) Askok esaten dutenez sei milloi peseta balio zuan kutxa onek.



Isabel'entzat egin zuten eliza.

Isabel'en eliza ta kutxa. Baña zoritxañez sartu zan Lutero'en ikaskintza: zabaldu ziran bere ikastiak, eta len ain begi onez begiratzen zuten Fede katolikoa baztertua izan zan. Ordutik asi ziran Santuen korpuzkien kontra; orduan bota ta loitu zituzten Eliza katolikoak oneraspenik aundienaz begiratu izan dien korpuzki doneak. Au dala-ta eraman zituan iribañez eta isekaz bere gaztelura Felipe de Hesse *dukeak*, eta ari baten azpian jañi zituan: geroago bi gizonek ixilik, iñork jakingabe, elizan sartu zituzten.

1546'gañen urtean kutxa elizan ondo etzego-la-ta Ziengenhay gaztelura aldatua izan zan, ta andik urte bira Martbourg urira..... Gizartean erabili ziran naste ta guden artean ibilita ere, oraindik 1810'gañen urtean berekin zeuzkan 824 ari baliorik aundienetakoak, *perlak* zenbatugabe,

Eskeñak V'gañen Karlos España'ko éregeari, Santuen Korpuzkiak erosten asi ziran katolikoak, eta érege onen aginduz. Isabel'en korpuzkiak lurpetik atera bear izan zituzten, beriz beren elizetara eramateko; baña etzituzten guztiak arkitu.....

Buru-ezuña ta beste batzuek Isabel-Klara-Eujenia Beljika'ko jaurlariaren (Gobernadora) eskuetara joan ziran, eta Bruselas'en *Karmeliten* elizan jañiak (1). Geroago buru-ezuña Rotxe-Guyen'go gaztelura aldatua izan zan, ta aspaldi ez dala Roan *duke* ta *kardenalak* Besanzon'era eramana. Beso bat Hungria'n dago ta beste korpuzki zati batzuek luzaro ez dala Hannover, Viena ta Colonia'n arkitzen ziran, Beslaun'en batez ere, Federiko *kardenal*, ta uri

(1) Komentu au uratua izan zan eta korpuzkiak galdua.

onetako obispoak 1680'gañen urtean Isabel'en omenez egin zuan *kapila* ederean: *kapila* onetan gordetzen da ere Wartbourg'ko gaztelutik bota zutenean eskuan zeraman malkitxo beltza.. 1833'gañen urtean Booz-Waldech *kondearen* mendean zegoan beso bat, ta *printzipe* askori saldu nairik egon bazan ere, etzuan erosleik arkitu. (1) Martbourg'en ez da korpuzkien apurik ere. Ango biztanleak diotenez, aldare-nagusi azpitik aterata 1634'gañen urtean lapurtuak izan ziran.

Kutxa irureun urte Frantzia'n igarota 1814'an Martbourg'ko *sakristian* utsik laja zuten. Edezlari Almania'tarak negar asko egiten dute Frantzia'n ari eder eta pitxietatik erantzia izan zalako; baña ez dira gogoratzen, ari ta pitxiak baño geiago balio zuana, Isabel'en korpuzkiak, berak ondatu ta banatu zituztela.

Eliza 1539'gañen urtea ezkeroztik *protestantien* mendean dago. Galdu zan Alemania'tařen artean Isabel doneaganako oneraspena, zalefasun eta omena. Egia da Fede katolikoak aurrerapen aundiak egin dituala azken aldi oetan. Gaur artzobispo ta obispo asko ditu ta 20 miloi baño geiago katolikoak. Aspaldixamar da Fuldako obispoak eliz polit bat egin zuala Isabel'en omenez, eta beraganako oneraspena geitzen dijoa. Jaungoikoari nai dakiola, Isabel donearen bitartez Eliza Katolikotik iges-egin zuten guztiak bere barutira biurtzea.

JAUNGOIKOAREN,  
ARANTZAZU'KO BERE AMAREN  
ETA ISABEL DONEAREN, GORALTZARAKO  
ALAXE.

(1) Sain'go gazteluan arkitzen da gaur, *kondeak* Leonila *printzesari* bialita.

# Ungria'ko Isabel Donearen

## BEDERATZIUĒENA (1)

### DAMU-OTOITZA

---

Jesukristo nere Jauna, egiazko Jaungoiko-Gizona, nere Egile ta Eroslea, zerana zeralako ta beste ezer baño maiteago zaitudalako, zu ainbat aldiz naigabetu izanaren damu naiz, eta beriz pekatu egin baño len il naiago nuke. Indasu Jaun erukitsu orek, Isabel donearen bitartez, bederatziuren onetan eskatzen dizudan grazia, zu goraltzeko ta nere onerako izango baldin bada. Amen.

---

Eta zuk Isabel donea, Prantzisko doatsua-  
ren alaba gogokoña, ta Jaunaren mirabe zintzoa, otoi-egizu nere alde Jaungoikoaren aurrean, ta iritxi zadazu, aŕen, Beragandik zure bitartez opa dedana. Amen.

### LENENGO EGUNA.

Isabel'ek gaxo ta beartsuentzat egiñik zeuzkan gaxo-etxeetako batian, aŕai berezi bat jan bear zuala gogoak eman zion gaxo bat arkitzen zan. Inondik inora ezin bilatu zuten aŕai ori. Isabel'ek atsegin ematearen gaxoari, fe-

---

(1) Isabel donearen bizitz-edesti ondoren, bere Bederatziurrena emen jartzen zaizu, beraganako zure oneraspena geitzen joan dedin, eta zure gorabera guztietan bere bifartekotasuna billatu dezazun. Laburra ta erraxa da.

dez beterik agindu zuan, uréan zeukaten *putzu* batera *balde* bat bota zezatela, ta ¡aírigaía! gaxoak ainbat opa zuan aíaiarekin atera zuten *baldea*. Mirari onen otsa asko zabaldu zan Turingia aldean. *Putzu* artan ez len ta ez gero aíairik etzan ikusi-ta. ¡Zer bizia ta aundia zan Isabel'en fedea!. Zerbaitegatik dago idatzirik fededun gizonak mendiak artuta leku batetik bestera aldatu ditzakela. ¡Nolakoa da zure fedea?... Epela noski.

Iru Aitagure, Abemari ta Gloria.

## EGUNEROKO AZKEN OTOITZA.

¡O Aita Prantzisko donearen Irugaíen Ordenako zaindari bikaña!. Urézko seaskan jaio ta aberastasun aundienean bizi izan baziñan ere, gabetasun goía maite izan zenuana, Prantzisko doatsuaren semien ikaskisunak artu zinituanean batez ere; indazu, gogoz beartsua izanik, zure onbideak jaíaitzeko grazia: batez ere zure fedea, zure itxaropen, otoitzerako zaletasun, ta Jaungoikoaganako ta geidea (projimoa) ganako maitetasun ta erukia. Egizu zuk bezela Araudiak (Ereglak) ipintzen dizkidan eginkizunak ondo beterik, mundu onetako egunak betetzen ditudanean, zurekin ta Aita Prantzisko doatsuarekin zeruan beriko atsedean izateko zoriona izan dezadala. Amen. (1)

## BIGAÍEN EGUNA.

Bein Isabel donea ogi-opil batzuek magalean zituala gaxoentzako gaztelutik bera urira zetoríen. Senaía eizara joana zuan; baña uste baño

---

(1) Beste egunetan, egunak dakaranaz gañera, berdin.

len etxe aldera artu zuan, ta alkar arkitu zuten. Naiago zuan Isabelek magalean zeramana sena-  
na-ak jakingabe eramán; baña au dana aritua  
bere emaztea ala zamatua ikusita, magala  
zabaltzeko agindu zion. ¡Miragaña! Ogi-opilak  
arkitu bea-ean, a-rosa zuri-go-ri ede-ak ikusi  
zituen. Ondo esana dago Jaungoikoagan uste  
izaten duana ez dala galduko. Ja-ri zaite bada  
Jaungoikoaren eskuetan, eta zure goraberetan  
etzera galduko.

### IRUGAÑEN EGUNA.

Jaungoikoa goragaña da leku guztietan, ze-  
ruan ta Aldareko Sakramentu Santuan batez  
ere. Au dala-ta kentzen zuan burutik, elizan  
sartzen zanean, Turingia'ko Dukesa zanez, bu-  
ruan eramaten zuan u-rezko *koroia*. Sofiak, be-  
re amagia-ebak, galdatu zion egun batean  
¿zergatik egiten dezu ori?—Ezin niteke—eran-  
tzun zion—*koroí* onekin sartu nere Jesus mai-  
tea arantzez *koroiatuta* dagon lekuan. ¡Ain-  
bestekoa zan Isabel'en apaltasuna! Nola sar-  
tzen zera zu elizan? ¿Oroitzen al zera Jesusen  
a-uean zaudela?.....

### LAUGAÑEN EGUNA.

Bein Isabel'ek bere gazteluan zauriz beterik  
zegoan gaxo itxurako gizon bat artu zuan. Mai-  
teki bere zauriak garbituta ondo ja-ri zizkan, eta  
agindu zion bere sena-aren oera joateko, au  
kanpoan zan-ta. Ustegabea etxeratu zan se-  
na-ña, ta zitalkeriz zalatu zioen jauregi-gizonak  
Luis dukeari Isabel'ek egin zuana; alegia gizon  
bat bere oiean sartu zuala. Ase-ñe biziz berea-



laxe joan zan dukea bere gelara, baztertu zuan itzalkaria (kortina) ta ari ta zur egiñik geratu bear izan zuan. Gizon zaurituaren antzean Jesus bera zan Isabel'ek bere etxean artu zuana. Kristo Gurutzatua arkitu zuan ditzirarik aundienak zabaltzen zituala. Orduan ezagutu zuan bere emaztearen santutasuna zenbaterañoakoa zan, eta Isabel'en zalatzaleak losatuta gelditu ziran. Jaungoikoa zure alde badago ¿zeñen bildur izan biar dezu.....

### BOSKAREN EGUNA.

Aldi batean gosete aundi bat sartu zan Alemania guztian, eta etzan Lotaringia-erkia guxtiena eraman izan bear zuana Jaunaren zigor ori. Danok Isabel'en gaztelura jotzen zuten ogi eske, ta danak beren zoñoak beteta biurtzen ziran. Isabel'en gazteluko ganbarak, iñoiz agortu ta aitutzen etziran ituñiak ziruditen: garia mirariz geitzen zan. Au dala ta dukea gaztelura *gefatik* biurtu zanean salaketa aundiak egin ziozkaten Isabel'en esku zabalaren kontra. Luis, duke berak jañi bear izan zuan bere emaztearen alde: «utzi, utzi, nai duana egin dezala, oraindik zutik dago nere jauregia-ta». Biotz onekoak ta eukitsuak onela saritzen ditu Jaungoikoak. Esku zabalekoa izan zaite, beartsuakin batez ere.

### SEIGAREN EGUNA.

Bein Isabel'ek bere gaxotegitako batean, jaiotzetik itxua zan gizon bat arkitu zuan. Ain itsusia zan, arpegi itxurik ere etzuan, betazal ta arpegi bat egiñik zeukan-ta. Isabel'en biotzak eukitsua izanik ezin eraman zuan eskergaitz au, Jaungoikoari otoi-egiñik, gaxoaren begie-

tan gurutze egin zuan, ta berealaxe sendatuta geratu zan gaxoa, iñoiz alako gaitzaldirik izan ez balu bezela. Izan zaite zu ere erukitsua elbarri ta gaxoekin, ta Jaungoikoa erukitsu izango zaizu. «Besteak neurtzen dituzun neuriz, neurtua izango zera» dio Jesus'ek.

## ZAZPIGARREN EGUNA.

Jaungoikoa maite-maite duanari luze egiten zaio Bera ikusigabe luzean igaro bear duan aldia. Isabel'ek ogeita lau urte besterik etzitian, ta alarik ere negarez egoten zan bere erbestea luze egiten zitzaiolako. Bein batean Jesukristo bera atzaldu zitzaion, esanaz: «ea nere maitea, eldu da ordua zure neke ta eramankizunetatik azkatuta atzedan egiteko. Atoz bada nere maitea, atoz, nere maitetasunak zuretzat eraturik daukan *koroia* artzera». Isabel beñi onekin Jaunaren maitetasunean geiago suturik, David Eregearekin abesten asi zan: «Pozez nago eman zaidan beñi onagatik, Jaunaren etxera joateko ordua eldu zait-eta. Bizitza ona daramanak ez dio bildurik eriotzari. Gure Epaillea datořenean *kontuak* artzera pozez ateak zabalitzen dizka, Elizako guraso batek dion bezela.

## ZORTZIGAREN EGUNA.

Isabel'en ilberia zabaldu zanean, Alamania guztia bera ikusinairik bere gaztelura abiatu zan. Beartsuen negarak aundiak eta samiñak ziran eta etzuten neuririk. Bere ileta (entieroa) Berari zegokion bezelakoa zan. Obispo, artzobispo, erege, eregegai, aundizki ta abar, ezin zenbatu ala jende batu zan. Bere eriotzan mirari asko egin zituan; baña miraririk aundiena,

ikuslari guztiak aritzen zituana, mota guztieta-ko txoriak gaztelu gañean ta inguruan ikustea zan, beren *kantuakin* iletak egin nai balituzte-ke bezela. Orobat gertatu zan gure Aita Prantzisko doatsua il zanean: onela goratzen ditu Jaungoikoak bere Santuak. Maite izan dezagun Jaungoikoa Isabel'ek maite izan zuan bezela.

## BEDERATZIGAREN EGUNA.

Aundiak eta ospetsuak izan baziran ere Isabel'ek bizitzan ta eriotzan egin zituan mirariak. Aundiagoak ta ospetsuagoak izan ziran il ondoren egin zituanak Amasei dira il da gero beriz piztu ziranak: deabruak bere atzaparetan zeuzkanak onez aterata sendatuak ez dira gutxi: elbañituak, itxuak eta gaxoak.... beren osasuna artutakoak ezin zenbatu ala dira. Esan ditteke Jaungoikoak Isabel donearen il-obia ta bere korpuzkiak (relikiak) aintzaz eta omenez bete nai izan dituala. Beraganako oneraspen sutsua izan zazu, bere ardurapean jañi zaite, ta ainbat mirari egin zituanak etzaitu esku utsik lagako. Zure onerako dana, iritxiko dizu Jaungoikoagandik.

---

*Isabel donearen goraltzarako.*

*Alaxe.*

*Aita Azkuek eratua.*

---



# ARKIBIDEA

	<u>Orri- aldeak</u>
Itz-aurrea . . . . .	3
I.—Isabel'en jaiotza ta bere sendia (familia).—Turin- gia'ko Jauregi-nagusian.—Bere ontasuna . . . . .	5
II.—Isabel'en lenengo aurrezkak.—Turingia'ko du- kearekin ezkontzen da.—Bere maitetasuna ta beartsuak.—Eukaristia ta Pasio-zalea . . . . .	10
III.—Prantzisko'tarren Ordena.—Isabel eta Prantzisko donea.—Irugarren Ordenan sartzen da.—San- tuaren soin-gañekoa, (kapa.) . . . . .	19
IV.—Turingia'ko gosetea.—Isabel'ek beartsuak arintzen ditu.—Gaixo-etxeak.—Aurrezka berriak.—Mirariak . . . . .	25
V.—Dukearen eriotza ta onbideak.—Isabel'en atseka- beak.—Jaungoikoaren asmoak. . . . .	32
VI.—Isabel bere semiakin gaztelutik botia da.—Abere- etxe bat arkitzen du.—Alaitasunik onena . . . . .	35
VII.—Isabel'en utzipena.—Ezespena.—Lokatz-artean.— Gaztelura biurtzen da . . . . .	40
VIII.—Isabel Jaungoikoari osotoro emana.—Ostiral-San- tuz.—Egiketa ta otoitza.—Zeru-jardunketak.— Mirariak . . . . .	46
IX.—Isabel'en Bizitza.—Eriotza abestiaz artzen du.— Mirariak eta donetzat iragarria.—Jaiak.—Iruga- rren Ordenako Zaindaria . . . . .	50
X.—Isabel donearen eliza.—Bere kutxa.—Bere kor- puzkiak . . . . .	53
Bederatziurrena . . . . .	58

## LIBURU - SARIA


1	. . . . .	0,35
12	. . . . .	3,80
25	. . . . .	7,50
50	. . . . .	12,00
100	. . . . .	22,00

## SALGAI

ZARAUTZ'EN  
D. Victorio de La-  
marain  
—  
ARANTZAZU'N  
Oñati.

ZUZENBIDEA :—48'garren orrialdean 11'garren lerroan dio nundefasun-esan bear du mendefasun.







△  
66

BUKTI AYAT